

Usurbilgo Udala

2020KO UZTAILAREN 23AN EGINDAKO EZOHIKO UDALBATZAREN BILKURAKO AKTA

BERTARATUAK

Alkate-Lehendakaria

Agurtzane Solaberrieta Mesa

Zinegotziak

Beñat Larrañaga Urdanpilleta
Joxe Mari Iribar Zapiain
Aroa Etxeburua Ugartemendia
Luken Arkarazo Silva
Itziar Basterrika Unanue
Josune Urkola Larrarte
Mirari Azurmendi Sorazu
Carlos Pérez Fraisoli
Francisco José (Patxi) Suárez Pérez

Idazkaria: Irantzu Arrizabalaga Gainza.

Kontuhartzailea: Xabier Olano Jauregi.

Ez dira bertaratu: Lur Etxeberria Gurrutxaga, Oskar Santamaria Pikabea eta Andoni Atxega San Sebastian.

Arratsaldeko 18:00etan batzarrari hasiera eman zaio.

Usurbilen, 2020ko uztailaren 23an arratsaldeko 18:00etan, Udaletxeko Pleno Aretoan, Usurbilgo Udaleko ezohiko Udaltza Plenoa egiteko goian adierazten direnak lehen deialdian bildu dira.


Bertaratuak bezala goian agertzen diren zinegotziak batzarkide direlarik, Agurtzane Solaberrieta Mesa izan da Batzarburua.

1.- 2020/529 DEKRETUAREN BERRI EMATEA.

Batzarkideei 2020/529 dekretuaren berri eman zaie eta hauek jakinaren gainean geratu dira.

2.- ALKATETZAKO DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA: 2020KO EKAINAREN 22TIK UZTAILAREN 10ERA (2020/468-2020/520).

Alkatetzak 2020ko ekainaren 22tik uztailaren 10era bitartean (2020/468-2020/520) egindako dekretuen berri eman zaie bertaratutakoei.



Usurbilgo Udala

Zinegotziak jakinaren gainean geratu dira.

3.- 2019KO AURREKONTU ETA ONDARE ADMINISTRAZIOAREN KONTU OROKORRA.

Alkateak adierazi du Ogasun batzordeak diktaminatuta datorrela. Erakusketa publikoan inolako erreklamaziorik ez zenez aurkeztu, orain behin betikoz onartzea proposatzen dela esan du.

Batzarkideek, Kontuen Batzorde Bereziaren irizpena aztertu dute eta gehiengoz onartu dute, honela dio:

“Behin 2019ko ekitaldia amaiturik, Aurrekontuaren exekuzioa eta Likidazioa onartu zuen Usurbilgo Udalak, 2020ko martxoaren 17an Alkatetzak emandako Dekretuaren bidez. Eta Dekretu horren berri eman zitzaion Udal Batza Osoari. Gainera, 2020ko apirilaren 30ean telematikoki egindako ohiko osoko bilkuran, 2019ko ekitaldiko komunikazioaren berri eman zitzaion batzarkide guztiei.

Geroztik, 2019 ekitaldiko Kontu Orokorra osatu zen, eta indarrean dagoen araudiari jarraituz, Kontuen Batzorde Bereziaren oniritzia jaso zuen 2020ko maiatzaren 15ean.

Jarraian, 15 lanegunez jendaurrean egonda, maiatzaren 20an Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zenetik.. Erakusketa publikoaren epealdian inolako erreklamaziorik jaso ez denez, hasieran emandako aldeko iritzia behin betikoa bihurtu da eta Udal Batza Osoak onartu behar du Kontu Orokorra uztailaren 31 baino lehen.

Beraz, indarrean dagoen araudia jarraituz, udal honetako Kontuen Batzorde Bereziak bere oniritzia emanik, Udal Batza Osoari proposatu zaio 2019ko Kontu Orokorrari behin betiko onarpena ematea. Horren aldeko 3 bozka jaso dira (EH Bildu eta PSE) eta abstentzio bat (EAJ).”

Honela izan da bozketa:


Aldeko botoak: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Beñat Larrañaga Urdanpilleta, Joxe Mari Iribar Zapirain, Aroa Etxeburua Ugartemendia, Luken Arkarazo Silva, Itziar Basterrika Unanue eta Francisco José (Patxi) Suárez Pérez.

Abstentzioa: Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu eta Carlos Pérez Fraisoli.

Beraz, erabakia gehiengoz hartu da.

4.- 2020KO EGUTEGI FISKALA EGOKITZEA.

Alkateak adierazi du 2020ko Ordenantza Fiskalak eta Egutegi Fiskala iazko urte amaieran onartu zituztela eta horiek izan direla indarrean. Baina Covidak eraginda, aurrez egindako aurreikuspenak erabat aldatu egin direnez, Egutegi Fiskalaren inguruan hainbat erabaki



Usurbilgo Udala

hartu zituztela esan du, besteak beste, ordaintzeko epea malgutzea eta baita alarma egoerak irauten zuen beste atzeratzea ordainketak.

Behin alarma egoera igarota, Kontuhartzaitzatik beharrezkoa ikusten zela dio Egutegi Fiskal berria onartzea, herritarrek ere garbi izan dezaten zerga bakoitzaren kobraketa epea noiz den.

Batzarkideek, Ogasun batzordearen irizpena aztertu dute eta gehiengoz onartu dute, honela dio:

“Aurtengo ekitaldirako ordenantzak eta egutegi fiskala onartu zituen bere garaian Udal Batza osoak eta argitaratu ere bai Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 2019ko abenduaren 16an. Urteko 3. hilabetearen ordea, aurre ikusi gabeko Covid 19 birusak astindu ditu plangintza guztiak eta alarma egoeraren ondorioz egutegi fiskala egoera berrira egokitu behar izan da.

Alarma egoerak iraun duen bitartean zergak ordaintzeko epeak eten direnez eta malgutasunez jokatzuz udal langileek egutegi fiskal berria proposatu dute.

Proposamenak, Ogasun batzordearen oniritzia jaso du (2 bozka alde eta beste 2 abstentzio).


Beraz, Udal Batza Osoak hurrengo egutegi fiskal egokitua onartu du:

ZERGA KONTZEPTUA

ORDAIN EPE EGOKITUA

- | | |
|--|----------------------------------|
| - Trakzio mekanikozko ibilgailuen zerga: | Martxoak 2tik Ekainak 19ra. |
| - Asteroko merkatuaren erabilpen tasa - urteko hiru hilekoa: | 1. Ekainaren 1etik 30ra. |
| - Ura, estolderia eta hondakinak - urteko 1. hiru hilekoa: | Ekainaren 1etik uztaialak 30ra. |
| - Ondasun higiezinaren gaineko zerga: | Abuztuaren 1etik irailaren 15ra. |
| - Ura, estolderia eta hondakinak - urteko 2. hiru hilekoa: | Irailaren 1etik urriaren 16ra. |
| - Espaloian zehar ibilgailuak sartzea (badoa): | Urriaren 1etik urriaren 30ra. |
| - Ekonomia jardueren gaineko zerga: | Urriak 1etik abenduak 10ra. |

Honela izan da bozketa:



Usurbilgo Udala

Aldeko botoak: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Beñat Larrañaga Urdanpilleta, Joxe Mari Iribar Zapirain, Aroa Etxeburua Ugartemendia, Luken Arkarazo Silva eta Itziar Basterrika Unanue.

Abstentzioa: Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Carlos Pérez Fraisoli eta Francisco José (Patxi) Suárez Pérez.

Beraz, erabakia gehiengoz hartu da.

5.- 2020KO UDAL AURREKONTUA ALDATU ETA EGOKITZEA.

Alkateak adierazi du Covid-19ak izugarritzko danbatekoa eragin duela zentzu guztietan eta udaleko hainbat eta hainbat kontu hankaz gora jarri dituela, tartean udal aurrekontuak.

Une honetan eskuartean duten informazioaren arabera, aurtengo udal aurrekontuetan eragin handia izango duela azpimarratu du. Kopuru zehatzei dagokienez, diru-sarrerak 1.526.063 euro jetsiko direla aurreikusten dutela eta diru galera horrek aurtengo aurrekontuak moldatzera eraman dituela esan du.

Ogasun batzordean adierazi zuen moduan, aurrekontu berri hau lau zutabetan azaldu nahi izan dute. Batetik, zein zen onartuta zuten aurrekontua, bigarren Covidak zein partidetan eragingo zuten, hirugarren Covidarekin zerikusirik ez duten beste aldaketa batzuk eta azkenik geratuko litzatekeen aurrekontu egokitua.

Diru-sarreraren jetsierak hiru arlotan aurreikusten dituztela esan du. Batetik, diru-bilketan eragina izango duela eta zerga bidezko sarrerak %10 jeistea aurreikusten dute. Bestetik, alarma egoera dela-eta udalak eskaini ez dituen zerbitzuengatik herritarrei ez zitzaiela kobratuko erabaki zuten bere garaian eta erabaki horrek aurrekontuetan bere islada duela esan du. Azkenik, murrizketa nagusiena Fondo Forala murriztetik etorriko dela azpimarratu du.

Gaur aurkezten duten aurrekontu egokitu hau 11.532.000 eurokoa dela adierazi du. Hala ere, Covidaren aurretik udal honek hainbat konpromiso hartu zituela esan du, tartean nagusiena Zumarteko obra bideratzeko konpromisoa, gero ezustean aurreikusi gabeko beste gastu bat ere iritsi zen eta horiei aurre egiteko kreditu gehigarriak gehitu behar izan dizkiotela esan du, eta horretarako diruzaintza gerakina baliatu behar izan dute.

Aipatu duen ezusteko gastua lehenengo hiruhilekoan Foru Aldundiko Ogasunetik jasotako errekerimendua izan dela adierazi du. Guzti honen jatorria duela 15 urte Luis Mari Ormaetxea alkate zela Ugartondoko operazio urbanistiko hartan egindako hitzarmen batean dagoela zehaztu du. Hitzarmen horretan permuta bat egin zela esan du, udalak Ugartondon zuen brigadako pabiloia utzi eta Atallukoa jasotzen zuen. Udalak ulertzen zuen truke hori BEZetik salbuetsita zegoela, ematen zuenak eta jasotzen zuenak balio bera zutelako. 15 urte geroago, ordea, Foru Aldundiko Ogasun sailak beste interpretazio bat egin du eta udalari esan dio permuta haren BEZa ordaindu egin behar duela eta, azkenean, Udalak ordaindu egin behar izan du.



Usurbilgo Udala

Alkateak jarraitu du esanez aurrekontua orekatu nahi bada, ez dela nahikoa remanenteko dirua eta horrek eragin duela dio 2020. urterako zituzten hainbat eta hainbat inbertsio bertan behera uztea.

Behin baino gehiagotan esan izan duten bezala, garai zail hauetan udal gobernu honen lehentasunak non kokatzen diren garbiak dira, hau da, gizarte babesa, kultura eta ekonomi sarearen zaintza. Ondorioz, murrizketa nagusienak edo handienak 6. kapituluaren inbertsioen atalean egin dituzte eta zeintzuk izan diren zehaztu ditu; hala nola, Erroizpeko filtrazio sistema, Pelaiogeneako obra, Aginagako Elutx bideko oinezkoen bidea, brigadarako hondeamakina erostea, kiroldegiko armailak erostea, Troia eta herrigunea lotzeko bidegorria egiteko aurreproiektua, Etxealdian egin beharreko parte-hartze prozesua eta efizientzia energetikoan sakondu ahal izateko aurreikusita zeuden hainbat obra. Beraz, inbertsioen ataletik ia milioi 1 euro murriztu behar izan dutela azpimarratu du.

Beste partida batzuk bere horretan utzi dituztela esan du, lehen aipatu dituen gizarte babesa, kultura eta ekonomi sarearen zaintza.

Gainerako arloak, udal gobernu honentzat arlo estrategikoak direnak eta gainera arlo transbertsalak direnak, euskera, parekidetasuna eta aniztasuna bere horretan utzi dituztela adierazi du eta arlo horietarako aurreikusita zituzten egitasmoekin aurrera egiteko asmoa dutela erantsi du.

Lehen kapituluaren ez dutela murrizketarik egin adierazi du, helburua delako udal honek kalitatezko zerbitzu publikoa eskaintzea usurbildarrei. Era berean, dirulaguntzetan ere ez dutela inolako murrizketarik egin gaineratu du.

Josune Urkolak adierazi du hemen egiten den proposamenarekin orokorrean ez datozela bat. Alkateak behin eta berriz aipatzen duela dio Covidaren eraginez izan dela diru partida hauen murrizketa, egia dela dio diru-sarrerak dexente jeisten direla, baina partida nagusia Covidarekin zerikusirik ez duena dela azpimarratu du.

Beraien ustez Covidarengatik egin behar izan diren aldaketa horiek bakoitza bere espedientean izapidetu beharko liriateke, hau da, ez dira nahastu behar Covidaren eragina izan dutenak eta Covidarekin zerikusirik ez dutenak baina aldaketa bat egin behar izan zaienak.

Bestetik, diru-sarreretan esaten dela dio zergetan %10eko jetsiera aurreikusten dela eta ez dute ikusten horren zergatia. Beraiek dakitenaren arabera zergetan egutegi fiskal berri bat onartu da, besterik ez, aurreikusita zeuden zerga horiek aurten kobratuko dira.

Alkateak erantzun dio instituzio guztietako aurreikuspena dela zerga-bilketa jeistea, ez soilik Usurbilgo Udalak egin duen prebisio bat.

Josune Urkolak galdetu du adibidez kontribuzioaren kasuan ez kobratzearen zergatia zein den, edo ibilgailuen zergarena.



Usurbilgo Udala

Tasei dagokionez baietz dio hau onartzen dutela, erabakia hartu baitzen ematen ez ziren zerbitzuen tasak ez zirela kobratuko.

Jarraian, Ugartondoko operazio urbanistikoaren inguruan jardun dira. Alkateak esan du ez diola ordungo alkateari ezer leporatu baizik eta garai hartako udalak egindako interpretazioa hori izan zela.

Josune Urkolak aipatu du kontuhartzailearen txostenetan ez direla agertzen baina bai partidetan, 40.400 euro hasieran aurreikusten zirenak baina gero kalkuluak egiteko garaian kontuan hartzen ez direnak.

Joxe Mari Iribarrek erantzun dio paperaren merkatua mundu guztian erori dela aurten, mankomunitate guztiak aldatzen ari direla eta San Markon bertan diru-sarrera bezala ere ez da aurreikusten, gastu bezala baizik.


Josune Urkolak inbertsioekin jarraitu du esanez 971.000 euro jetsi direla. EAJ udal taldeak aurrekontuen proposamena egin zuenean pasa den abenduan 125.000 eskatu zituztela gogoratu du, 60.000 euro bidegorriarena, 50.000 euro Etxealdiakoa eta 15.000 euro bizikidetzakoa. Horietatik 95.000 euro onartu zitzaizkiela esan du eta orain kopuru horretatik 80.000 euro kendu direla azpimarratu du. Hori ez dutela onartzen adierazi du.

Covidaren ondorioz sortu diren gastuak 163.000 euro direla esan du eta banan banan zehaztu ditu. Hasierako aurrekontua onartu zenean, aurten lehenengo aldiz, ezustekoei aurre egiteko 2.000 euroko partida onartu zela esan du, eta oker ez badago horretarako erabili da.

Alkateak zehaztu nahi izan du Udalak hartutako erabakiaren ondorioz zerbitzuak ez kobratzea, hori Udalarentzat gastu bat dela.

Josune Urkolak errepikatu du esan dela "aurrekontu egokitua da Covidarengatik", eta Covidarengatik baino aldaketa handiagoak eta potologoak direla dio bestelakoak.

Alkateak erantzun dio Covidak eragin diela ia milioi 1 euro murriztea 6. kapituluan. Era berean, Udal honek Gipuzkoako Foru Aldunditik 900.000 euro gutxiago jasoko dituela dio, Foru Aldundiak diru-bilketa gutxiago izango duelako Covidaren ondorioz. Horri gehitu beharko zaizkio aurreikusitako sarrera gutxiago eta inbertsionarako bideratuta zeuden hainbat proiektu bertan behera utzi behar izan dituztela. Beraien kriterioa garbia izan dela dio, lehenetsi beharreko inbertsioa inbertsio soziala izatea, beraientzako gai transbertsalak direnetan murrizketarik ez egitea, I. Kapituluaren murrizketarik ez eta noski dirulaguntzetan murrizketarik ez. Beraz nondik kendu behar den garbi dio, inbertsioetatik, eta hori ez bada Covidaren eragina zerena den galdetzen du.



Usurbilgo Udala

Josune Urkolak erantzun dio berak ez duela esan Covidaren eraginik ez dagoela, baizik eta eraginik potoloena kreditu aldaketa honetan ez dela Covidarengatik.

Alkateak gaineratu du remanentea erabiltzeko arrazoia ez dela Covida, beste arrazoi batzuk direla. Beraz, udal hau gai izan dela dio Covidari aurre egin ez ezik aurretik zituen konpromisoerik eta ezustean etorri diren gastu bati aurre egiteko. Hori horrela, aurrekontu egokitu hauek ezin direla bereiztu, ezinbestean elkarrekin egin behar dituztela adierazi du.

Josune Urkolak esan du, alkateak azkena aipatu duen horren harira, proposamen honekin aurrezki arrunta aurreko aurrekontuarekiko %3a bakarrik geratzen dela eta hori oso gutxi dela dio.

Josunek Xabier Olano kontuhartzaileari %10eko jetsiera hori zergatik aurreikusten den azaltzea eskatu dio.

Alkateak adierazi du ezer baino lehen Josune Urkolak esan dituen gauza batzuei erantzun nahi diela eta, era berean, Patxi Suárezi hitza eman dio zerbait esan nahiko balu.


Patxi Suárezek esan du ez duela hitza hartuko.

Alkateak esan du sarrera jetsiera aurreikuspen horri buruzko azalpenak kontuhartzaileak emango dituela eta, ondoren, Josunek aipatu duen EAJK aurrekontuei egindako ekarpenetatik dirua kendu dutenari buruz alkateak berak azalpenak emango dituela.

Kontuhartzaileak hitza hartu du eta adierazi du gaur plenora ekarri duten puntua gardentasun dexentez ekarri dela aurrekontuaren egokitze bat bezala eta ez kreditu aldaketa soil bat bezala. Legeak ezartzen duen bezala kreditu aldaketa soil bat egitea nahikoa zela esan du, baina gardentasunez eta baita zuhurtziaz ere mugak ezarri nahiaz aurrekontu osoaren egokitzapen bat ekarri dela esan du.

Aurrekontua egokitze horretan eragin asko daudela esan du. Aurrekontuarekin 2019ko udazkenean hasi zirela dio eta abenduan onartu eta argitaratu zela, baina geroztik gauza asko gertatu direla esan du. Gertatu diren gauza guzti horiek islada bat dutela dio aurrekontu egokitu honetan, baina aldaketarik inportanteena zalazarik gabe Fondo Foralarena dela azpimarratu du. Sarrerak guztira milioi eta erdi jeisten direla esaten ari dira eta horietatik ia 900.000 euro dira Fondo Foralak udalari gutxiago emango dizkionak. Aipatzen diren besteak ere inportanteak dira eta ezustekoak dira baina kopuru horrekin konparatuta herena direla adierazi du. Objektibotasunak behartzen dituela dio bakoitza bere neurrian baloratzea eta Fondo Foralak 900.000 euroko kopuruarekin ematen dio Udalari astindurik handiena.

Udal zergei dagokienez adierazi du teoriarik zergak ordaintzeko padroi fiskal bat osatzen dela, padroi fiskal horri tipo batzuk ezartzen zaizkio eta herritarrei aukera ematen zaie egutegi fiskal baten arabera ordaindu dezaten. Horraino denak normal jarraituko beharko lukeeta dio,



Usurbilgo Udala


baina herritarrek ezin dutelako edo nahi ez dutelako beste lehentasun batzuk dituztelako, gertatzen dena da ez dutela beste urteetan bezala ordaintzen. Eta hori ja ikusi dutela dio ibilgailuen zergan, ez dela kalkuluak egitea. Ibilgailuen zerga ordaintzeko borondatezko epea bukatu dela dio eta aurreko urteetan baino %10 gutxiago kobratu dela zehaztu du. Egoera hori dela dio eta ezin dituztela begiak itxi horren aurrean. Kontuhartzailearen ustetan zuhurtzi esfortzu bat egiteak Udalari behartzen dio benetan gertatuko dena aurreikustea. Ibilgailuen zergarekin hori gertatu baldin bada, seguraski beste zergekin ere beste horrenbeste gertatuko dela adierazi du. Gaineratu du hori ez dela Usurbilen espreski eta kasualitatez gertatzen den zerbait, hori Gipuzkoako herri guztietan ari dela gertatzen, EAEko herri guztietan ari dela gertatzen, Foru Aldundiaren zergekin ari dela gertatzen, beraz, errealitatea dela adierazi du. Datorren errealitate bat izanik ahal dela behintzat aurreikusi, neurriak hartu eta zuhurtzia ariketa bat egitekoaren aldekoa dela esan du.

Sorpresa izan den BEZren kitapenari buruz adierazi du 3 epe edo mugarri garrantzitsu daudela. Lehenengoa hitzarmena sinatu zen garaia, 2005. urtea. Garai hartan Luismari Ormaetxea zela alkate baina bera kontuhartzaile zela esan du. Aipatutako hitzarmena oso hitzarmen zabala zela adierazi du, konpromiso asko hartzen zirela eta horietako bat zela hemen aipatu den permuta edo trukea egitea. Permuta hori 12 urte beranduago 2017an egin zela gaineratu du eta hor sortzen dela BEZa ordaintzeko beharra. 2017an formalizatu eta eskrituratu zenean, bera ez zegoela orduan esan du, udalean zeudenak nonbait interpretatu zuten ekintza hori neutroa zela udalarentzat. Izan ere saltzen zuen edo transmititzen zuen eraikinarengatik sortzen zen BEZ kopuru berdina soportatzen zuen erosten zuen eraikuntzan. Sorpresa izan dela dio Foru Aldundiko Ogasunak bere aldetik rebisio prozedura bat hasi duela eta horren baitan esan duela Udalak lehenengo ordaindu egin behar duela osorik eta gero ikusiko dute beraiek Udalak ordaindu duen horretatik ze zati edo prorrata dagoen ur hornidura zerbitzuari lotuta eta ondorengo urteetan hortatik ze zati berreskuratuko ahal izango duen Udalak. Baina Ogasunak hori egin duela dio "a la brava", hau da, likidazioan esan "Usurbilgo Udalari dagokio 280.000 euro ordaintzea eta hilabete daukazu ordaintzeko eta ez baduzu ordaintzen nik retenitu egingo dizut eta zuk jaso behar dituzun dirulaguntza guztietatik deskontatzen joango naiz". Horren harira, 2-3 hilabete Diputazioetik batera dirulaguntzarik jaso gabe egon direla esan du eta gaur dela eguna, ez Udalak bere borondatez, Foru Aldundiak zor hori oso-osorik kobratu diena. Kontuhartzaileak dio ez dakitela noiz eta zenbat berreskuratuko duten, hartuemanetan ari direla eta konbentziturata dagoela zati bat behintzat berreskuratuko dutela.

Josune Urkolak zehaztu du bere galdera zela 2005ean onartu zenean txostenak aldekoak ziren edo ez.

Xabier Olanok erantzun dio hitzarmenaren aldekoak izateak edo ez, ez daukala zerikusirik gero BEZarekin egiten den interpretazioarekin.

Alkateak gehitu du, kontuhartzaileak lehen esan duen bezala, hitzarmen horretan aipatzen den permutaren gauzapena 2017an egin zela. 2005ekoa aipatzen dutela dio guzti honen jatorria kokatzeko.



Usurbilgo Udala

Josune Urkolak berriz ere galdetu du ea operazio hori egiteko momentuan 2005ean aldeko txostenak bazeuden.

Xabier Olano kontuhartzaileak erantzun dio ez dakiela baina hitzarmenaren txostenak egongo direla dio, plenoak onartu baitzuen hitzarmena eta ez duela uste aurkakok izango direnik.

Alkateak dio ez direla zalantzan jartzen ari 2005eko hitzarmen hura egokia zen edo ez, soilik guzti honek jatorria hor duela.

Kontuhartzaileak esan du aste honetan bertan ere Diputazioko teknikariek jardun dela honi buruz ze zati eta nola egin etab. Normala den bezala udal teknikariek udalaren aldeko jarrera hartzen dutela dio eta ahalik eta portzentairik handiena berreskuratu nahi dutela eta Foru Aldundiak bere aldetik ahal den gutxiena. Hor sokatira batean daudela eta ikusiko dutela dio non geratzen diren.

Alkateak salatu du Diputazioak gai hau eramateko moduak Udala maniobrarik gabe utzi duela.

Mirari Azurmendik esan du hemen aipatu den bezala 2017an gauzatu zela 2005etik zetorren eta geldirik zegoen espediente hori eta pentsatu nahi duela dio informazio gehigarri bat edo eguneratua egongo dela. Hori horrela, 2017ko operazio hori buruz ze informazio dagoen galdetzen du.

Kontuhartzaileak erantzun dio 2017an ardura teknikoetan zeudenak ez direla pertsona berdinak.

Alkateak esan du momentu hartan egin zen interpretazio teknikoa aipatu dutena izan zela eta ordungo udal gobernuak hori egin zuela, besterik gabe. Sorpresa orain etorri dena izan dela aipatu du. Gaineratu du ordungo teknikariek eta politikoekin hitzegin dutela gai honen inguruan.

Kontuhartzaileak aipatu du, Mirariri erantzunez, 2005eko hitzarmena plenoak onartu zuen bezala eta espediente bat baduen bezala, 2017ko formalizazioaren inguruan seguraski ez dela plenoko erabakirik ere egongo, lehendik hartua zegoelako eta tramite huts bat izango zelako. Halaber, brigada Atalluko pabiloia erabiltzen ari dela dio 2017a baino askoz lehenagotik. Baina Diputazioari oso ondo etorri zaiola dio, ulertzea oso erraza den arrazoi batengatik, benetan ez balitz formalizatu 2017an eta zergaren debengoa/zortzapena 2005ekoa balitz, preskribituta egongo litzatekeela eta ez litzatekeela ezer ordaindu beharrik egongo esan du.



Usurbilgo Udala

Alkateak Josunek egin duen beste aipamen bati erantzun nahi diola esan du, 2020ko Aurrekontuen eztabaida hartan EAJ udal taldeak hiru ekarpen egin zituen eta udal gobernuak hiru ekarpen horiei bide eman zien. Batetik, Troia eta erdigunea lotzeko bidegorriaren aurreproiektua egitea zen. Bigarrena, kezka konpartitua zena, Etxealdiak ordenazio berri bat egitea eskatzen zuela. Udal gobernuak ordenazio berria egiteko proiektua herritarrekin batera landu behar zutela ikusten zuen eta beraien asmoa zen HAPOn erredakzio betean egonik, horren baitan parte-hartze saioa egitea. Baina Hirigintza batzordean aipatu zuten bezala, Covidak gauza asko atzeratzea ekarri du, hala nola, Emakumearen etxearena eta Zubietako parte-hartze prozesua, zein HAPOn genero ikuspegitik lantzeko eta ikuspegi feminista hori HAPOn kokatzeko saioa. Guzti hau udazkenara atzeratu behar izan dutela zehaztu du eta arrazoi ekonomikoak baina gehiago arrazoi operatiboengatik, lan-kargagatik lau-bost prozesu dinamizatzeko zailtasunak dituztela. Lehentasunak berriro bernorabidetu eta finkatu behar dituztela eta Etxealdiakoa udazkenean egiteko zailtasunak ikusten dituztela esan du, hori horrela 2021ean egiteko prestutasuna azaldu du.


Alkateak Diputazioaren jarrera salatu du. Jarraitu du esanez otsaila-martxoan inguruan Nora HAPOn arduradunarekin eta Ibon Ingurumen teknikariarekin hainbat bilera egin zituztela ikusteko bidegorria zer eta nola, hartutako konpromiso horri bide emateko. Horri bide emateko dudik gabe Diputazioarekin biltzea eskatzen zuela dio, bidegorriaren eskumena berea baita eta ez Usurbilgo Udalarena. Baina urteak joan urteak etorri ikusten zuten inoiz ez zela iristen bidegorria. Era berean, gogoratu behar da aurreko legealdian irtenbide bat eman zitzaiola Troiako zatiari, ETSren eta Udalaren aldetik hori egiteko prestutasuna bazegoen baina Diputazioak bertan behera utzi zuen. Beraz, hura bertan behera utzita beraiek ulertzen zutela dio beste bat egin beharko zutela eta horretan hasi zirela adierazi du. Horretan hasita, hainbat bilera egin zituztela dio bai Diputazioko Azpiegitura sailarekin eta bai Mugikortasun sailarekin. Ez diola kolore politikoa jarri nahi esan du baina EAJk Azpiegitura saila gidatzen duela eta PSEk Mugikortasuna saila. Gai izan zirela dio biek batera bilera egiteko. Bilera horretan udal honi esan omen zitzaion “guri ez dagokigula hori egitea, beraiei dagokiela hori egitea”, hori gainera prepotentzia handiarekin esanda. Beraz, Hirigintza batzordean esan zuten bezala, “egin ez eta egiten utzi ez”.

Bilera horretara ere herri sarrerako rotondako proiektuarekin joan zirela esan du. Beste proiektu bat berez Diputazioaren eskumena dena Udalak bere gain hartu, exekuzio proiektua egin eta bertara joan ziren esanez Udalak bere lanak egin ditu eta konpromisoak bete ditu, eta orain zer?

Udala ikuspegi global eta integral batekin joan zela bilera horretara esan du, dena baitago lotuta, rotonda, bidegorria, Matia, igogailua. Eta hor Udalak ezer gutxi egin dezake, Diputazioaren eskumena baita.

Baina Diputazioak Udalari erantzun ziona izan zen, batetik, Udalari ez dagokio beraz udalak ez du proiekturik egin behar. Horren aurrean, Udalak elkarlanean egiteko aukera jarri zuen mahai gainean eta deitezotan geratu zirela esan du. Era berean, gaur gaurkoz Diputazioak rotondarako dirurik ez zuela jarriko jakinarazi omen zien.

Mirari Azurmendik adierazi du rotondaren proiektua Usurbilgo EAJk beti babestu duela.



Usurbilgo Udala

Alkateak aipatu du oker ez baldin badago gonbita egin ziela beste bi alderdiei bilera horretara joateko eta erantzuna izan zen udal gobernuari zegokiola bilera hori egitea.

Mirari Azurmendik Troiari buruz esan du bertarako proposatzen zen irtenbidea ez zutela oso garbi ikusten.

Azken informazioaren arabera, beraiek planteatzen dutena da bidegorria bidearen ondotik egin beharrean, atzeko aldetik egitea. Horregatik, hasieran bideragarritasun azterketa bat egitea proposatzen dute.

Diputazioaren erantzunaren atzean uste du agian ez dagoela dirurik edo, baina ez du uste eskumen kontua denik.

Alkateak berriz ere esan du eskumen kontua izan zela, Diputazioaren erantzuna garbia izan zen, Udalari eskatu zioten beraiei zegokien gaietan ez sartzeko.

Udala prest zegoen ETS, Diputazioa eta Udalaren arteko bilera bat antolatzeko. Mirarik esan duen bezala, bidegorria egiteko bi aukera daude, edo errepidearen aldetik edo ibaiaren aldetik, ez dago besterik. Ibaiaren aldetik egitea lehenetsita, ETSk jakinarazi zien hor beraiek lur-erreserba bat eginda zeukatela trenbidearen zabaltzea egiteko. Eta alkateak galdetzen du baina noiz egiteko? Eta zabaltze horrek beste proiektuak hipotekatu behar ditu? Beraz, arrazoi horregatik ibaiaren aldetik ezin bada egin eta errepidearen aldetik ere ez garestia delako, zein den irtenbidea galdetzen du. Edonola ere, lan-mahai bat eratzeko proposamena egin ziela esan du.


Gaineratu du urtebete honetan ikusi duela erakundeen arteko koordinazioa, lan-mahaiak, ez direla existitzen. Lehen aipatu dituen Diputazioko bi departamentuen arteko koordinazioa ere ez dela existitzen esan du.

Alkateak momentuko egoera hori dela dio eta Diputazioko beraien alderdietan eragitea eskatu die beste bi alderdiei. Bestalde, herri planteamentu bat izan behar duela uste du eta horregatik egin ziela bileran parte hartzeko gonbita. Ez dela udal gobernu honen konpromiso falta azpimarratu du.

Mirari Azurmendik dio orain beste aukera edo soluzio batzuk planteatu behar dituztela, ezin dutela esku hutsik joan.

Alkateak dio ez dagoela beste aukerarik, Troia eta industrialdera iristeko bidea nola egin behar den galdetzen du.

Beñat Larrañagak esan dio Mirari konfunditzen ari dela. Beraien aldetik soluzio bat lantzeko arazorik ez dagoela dio. Aurreko legealdian garbi geratu zela dio herritarrei eman beharreko



Usurbilgo Udala

zerbitzu bat emateko baitan, kriterio politiko batzuen baitan, beraiei egokiagoa iruditzen zitzairen errepidearen ondotik egitea Añorgan egin den bezala. Hori ikuspegi bat dela dio baina beste aukera bat ere izan daitekeela eta beraien aldetik ez dagoela arazorik, soluzio bat da nahi dutena. Eta diru bat kontenplatu dutela horretarako, baina erantzuna garbia izan da, ezezkoa.

Alkateak dio konformatuko litzatekeela Diputazioak Udal honekin bidegorriaren inguruko lanmahai bat eratuko balu. Gaineratu du ezetz esan zaienean ez dutela berriz ere proiektu bat egingo eta diru bat gastatuko inongo ziurtasunik edo bermerik gabe.

Mirari Azurmendik esan du aurreko batzordean jakin zutela konpromiso hori kendu egin zutela, beraien ustez konpromiso hori mantendu egin behar da eta beste aukera batzuk landu.

Erantzun zaio konpromiso hori kendu dela ezezkoa esan zaielako.

Beñat Larrañagak eskaera udalean erregistratu duten moduan, eskaera berbera Diputazioan erregistratzera eta horren berri Nouan ematera gonbidatu ditu. Udala horma baten kontra tope egiten ari dela dio eta horma hori desegiten den momentuan berreskuratuko dutela dio.


Josune Urkolak dio batzorde eta pleno guztietan aldemenekoa gutsiezen ari direla.

Alkateak erantzun dio ez dela gutsiezen ari, bakoitzaren konpromisoak non dauden esaten ari dela eta zer erantzun zaien.

Josune Urkolak esan du oso desberdina dela Foru Aldundira bilera baten eske joatea ezer gabe edo ja besopean proiektu batekin joatea eta esatea "hau da guk egin duguna eta honi zer esaten diozue?".

Alkatea erantzun dio ea zer uste duten, bilerara orri txuri batekin joaten direla? Lehen esan duen bezala, HAPOaren eztabaida bete-betean daude, udal honek ikuspegi orokor eta integral bat duela dio nola izan behar duten herri honen konexioak eta ikuspegi oso eta integral horretatik alternatiba diferenteak lantzen ari direla esan du. Teknikariek egiten duten lana ez dutela ezagutzen uste du eta galdetzen die ea nozbait teknikariengana joan ote diren galdetzera zer duten eskuartean. Horrela ikusiko luketela dio udal hau ez dagoela esku hutsik eta proposamenak dituela han eta hemen egiteko.

Beñat Larrañagak aurrekontuen egokitzapenaren onarpenera bueltatuz eta EAJK aipatu dituen kontrako argudioen harira, papera eta kartoiarena Joxe Mari Iribarrek azalpenak eman dizkiela dio, diru-sarreretan zergetan %10eko jetsiera aurreikusten dela dio ikuspegi tekniko



Usurbilgo Udala

batetik eta hiru hilabete pasa ondoren datu errealean ganean egindako estimazioa dela esan du.

Bestalde, EAJK aipatu duela dio kontrako argudioen artean bere garaian egindako proposamenen baitan aurrekontuetatik hirutik bi desagertu egin direla, honen aurrean Beñatek esan du lehen ere jasota zeudela eta bere garaian kontra bozkatu zutela.

Gero diote ere bi gauzak ez direla nahastu behar, Beñatek dio halako aurrekontuen eguneraketa bat ez dela urtero egiten eta beste prozedura batzuk daudela horrelako mugimenduak aurrera eramateko, baina halabeharrak eta zorigaitzak eraman dituztela dio aurrekontu hauen egokitzapen bat egitera. Xabierrek esan duen bezala, gardentasunez ariketa hau konpartitu nahi izan dutela azpimarratu du, are gehiago, zutabe gehigarri bat jarri zela dio bereizteko zer zen Covidaren eragina eta zer bestelako aldaketek eragiten zituzten mugimenduak. Baita ere komentatzen zuten EAJkoek Covidak eragindako gastuak 140.000 euro inguru zirela, honen aurrean dio gastu eta sarrera faltaz baino inpaktu ekonomikoaz edo eragin orokorraz hitzegin beharko luketela eta kasu horretan nahiko agerian dagoela dio sarreraren gutxitzearekin 1.500.000 euro bueltakoa dela.

Beñatek galdetzen du lau zutabe egin beharrean agian bosgarren bat ere sartu beharko luketela, izenburu bezala letra handiz Aldundia duena eta bertan jarriko luke 889.969 euro. Kopuru hori, Covida egon edo ez egon, udal honen eskubide aitortu bat zela azpimarratu du.

Mirari Azurmendik zuzenketa txiki bat egin nahi izan du, aurrekontuetan ez zutela kontra bozkatu dio abstenitu egin zirela.

Josune Urkolak gaineratu du papera eta kartoiaren inguruan bakar-bakarrik esan duela 40.400 euro daudela eta horiek ez direla kontutan hartu.

Bestalde, garbi gera dadila dio aurrekontuei ez ziela kontra bozkatu.

Amaitzeko esan du hau guztia bukaera-bukaeran aurrekontuen egokitzapen bat izan daitekeela, baina hau berez kreditu aldaketa bat dela.

Alkateak erantzun dio hau ez dela kreditu aldaketa soil bat, ikusten ari direla dio zer-nolako inpaktua izango duen eta horrek behartu dituztela aurrekontu berri batzuk egitera, lehen aipatu bezala, gardentasunez jokatzu eta zuhurtzia printzipioa erabilita.

Xabier Olano kontuhartzaileak aipatu du argazki osoa irakurri nahi bada, eta hori egitea interesgarria iruditzen zaio, hasieran aurrekontu bat zutela dio 12.300.000 eurokoa eta aurrekontu horri aurretik kreditu aldaketa txiki batzuk egin zaizkiola esan du eta alkate dekretuz onartzen direla. Hau da, kreditu globaletik direnean eta txikiak direnean alkate dekretuz onartzen direla esan du eta ez daudela plenora ekarri beharrik. Plenora ekarri beharra dagoena oraingoa dela dio, kreditu gehigarriak direlako. Kreditu gehigarriak direla dio bi finantziario iturri erabiltzen dituztelako, edo diruzaintza gerakina edo baita ere sarrera handiagoak.



Usurbilgo Udala

Kreditu aldaketa soil bat eginda oso motz geratuko zirela eta ez hori bakarrik, herriaren aurrean inpresio faltsu bat emango zutela uste du. Hau da, 12.300.000 euroko aurrekontua zuten, kredituak gehitzen dituzte 700.000 eurotan eta, beraz, 13.000.000 euroko aurrekontu batekin doaz aurrera. Hori ez dela errealia azpimarratu du eta errealitatera hurbiltzeko kreditu atxekipenak egiten direla esan du.

Pentsatzeko dio egoera zein atipikoa den ze aurrekontu aldaketetan, kreditu aldaketetan badaude aukerak gastuak gutxitzeko edo gastuak handitzeko, baina ez dago aukerarik sarrerak gutxitzeko. Hori horrela, egiten dena da kredituak retenitu/atxikitu. Beraz, 1.500.000 euroko kredituak atxikitu egiten dituztela adierazi du. Beraz, ez dela kreditu aldaketa bat eta kreditu aldaketa baten espedientea baino askoz ariketa zabalagoa, argiagoa eta gardenagoa egiten dela esan du.

Josune Urkolak esan dio kontuhartzaileari onartzen dituela eman dituen argibideak, baina gaur pleno honetara onartzeko ekarri den proposamenak berak esaten duela “kreditu aldaketak onar ditzan”.

Kontuhartzaileak erantsi du gaurko erabakiaren ondoren hau argitaratu egin beharko dela, jendaurrean egongo dela, alegazioak izan daitezke, etab. Legeak publikatzera behartzen dituen da 722.000 euroko kreditu gehigarri hori, besterik ez. Ez dutela besterik egin beharrik esan du, baina bere ustez egitea oso ariketa sana eta gardenena dela.

Kontuhartzaileak esandakoari alkateak zuhurtzia gaineratu dio arrazoi moduan.

Batzarkideek, Ogasun batzordearen irizpena aztertu dute eta gehiengoz onartu dute, honela dio:

“Aurtengo ekitaldirako Udal Aurrekontua bere garaian onartu zuen Udal Batza osoak eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ere bai 2020ko urtarrilaren 16an.

Aurrekontuaren exekuzioa ohiko martxan zihoanean ordea, aurre ikusi gabeko Covid 19 birusak astindu itzela eman dio udal jarduerari eta indarrean zen Aurrekontuko partida ugari egokitu behar izan dira, egoera berrira moldatuz.

Alkatearen hitzetan, izugarritzko danbatekoa eragin du Covid 19k gizartearen esparru guztietan, eta udalotara ere iritsi dira danbatekoaren hotsak eta ondorioak. Izan ere, aurtengo aurrekontuetan izango duen eragina handia da. Egun dugun informazioaren arabera, gure aurreikuspena da, diru-sarrerak 1.526.063 € jaitsiko direla, eta horren arabera, aurrekontu egokitua aurkezten da.

Sarrerei dagokionez, 2020ko aurrekontua, ekitaldirako onartu zena 12.375.710 Eurokoa izan zen. Orain ordea, Covid-19aren eraginez sarrerak 1.526.063 € gutxituko dira:



Usurbilgo Udala

1. Diru-bilketan eragina izango du, eta, ondorioz, zerga bidezko sarrerak %10 jaitsiko direla aurreikusi dugu, gutxi gorabehera 440.000 € gutxiago bilduko ditugu.
2. Alarma-egoeran eskaini ez diren zerbitzuengatik herritarrei kobratuko ez diegunez, sarrera gutxiago izango dira (Oiardoko abonua, ikastaroak, haur eskola, eguneko zentroa...). Hots, guztira, 180.981 euro gutxiago.
3. Murrizketa nagusia Udal Finantzaketa Foru Funtساتik dator. Gipuzkoako Foru Aldundiak, aldebakarrez hartutako erabakiaren ondorioz, Udalak ia 900.000 euro gutxiago jasoko ditu.

Haatik, aurkezten den aurrekontu egokitua 11.532.000 €-koa da, Covidaren aurretik hartutako hainbat konpromisori eta iritsitako ezusteko bati aurre egiteko, 722.753 €ko kreditu gehigarriak gehitu zaizkio aurrekontuari, diruzaintza gerakina baliatuz, nagusiki.

1. Batetik, Zumarte Musika Eskolako obra bideratzeko, Moyua enpresa eraikitzailearekin akordioa sinatu zuen udal honek. Akordioaren berri eman zenean azaldu bezala, bide malkartsua izan du obra honek. Gu gobernura iritsi ginenean, ataka zailean zegoen obra. Impasse batean, eta, gainera, kasik epaitegietako bidean. Hori saihestu du akordioak, eta datorren ikasturtean eraikin berrituan hasiko dira musika eskolakoak eta dantza-taldekoak. Obrak amaitzeaz daude. Moyuak akordioa beteko du, eta Udalak, bere aldetik, akordioaren barruan hartutako konpromisoari bide emateko, 337.620 € gehiago ordaindu beharko ditu. Eta horri erantzuten dio kreditua gehitzeak. Hirigintzako saileko aurrekontuetan dago jasota.
2. Bestetik, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasunetik jasotako errekerimendu baten ondorioz, Ogasunari 283.326 € ordaindu behar izan dizkiogu. Orain dela 15 urte Luis Mari Ormaetxea Alkateak Ugartondoko operazio urbanistikoaren hitzarmena sinatu zuen. Hitzarmenean sinatutakoa betez, permuta eskrituratu zuen Udalak Notaritzan 2017an. Permutaren ondorioz, Udalak Atalluko udal brigadaren eraikin berria eskuratu zuen. Eta trukean, Ugartondon jabetzan zituen lokal zaharrak entregatu. Udalak orduan ulertu zuen salerosketa hark ez zuela BEZa ordaindu beharrik, jasotzen zenak eta ematen zenak balio berdina zutelako.

Orain, GFAk beste interpretazio bat egin du, eta BEZ ordaintzeko exijitu dio Udalari. Jada ordainduta dago, Ogasunak berak egin behar zituen diru sarrerak murriztu dituelako. Ogasun departamenduaren gastuetan dago jasota.

3. Beraz, 2020ko aurrekontuetan aurreikusi gabeko bi gastu handi horiei aurre egiteko, zein Covidaren eraginei aurre egiteko, erabilgarri dugun diruzaintza gerakin osoa erabili beharko dugu, gure aurrekontuei 682.353 € kreditu gehitzea eginez. Hala, aurrekontu berritua 11.532.000 € izango da.

Gastuei dagokionean zenbait partida gutxitu beste aukerarik ez da gelditzen, Aurrekontua orekatu nahi bada:

- Kreditu txertaketa handia egin bada ere, ez da nahikoa Covidak eragin duen danbateko itzelari aurre egiteko, sarreren atalean ikusi bezala, udal zergak nabarmen gutxituko direlako eta foru funtsaren murrizketa mardula pairatuko dugulako
- Aurrekontuak, ondorioz, birnorabidetu egin behar izan dira.




Usurbilgo Udala

- Hiru alderdiok egindako prentsaurrekoan adierazi bezala, krisi ekonomiko eta garai zail hauetan, gure lehentasunak kokatu genituen: tokiko gizarte-, kultura- eta ekonomia-sarearen zaintza. Jendearen bizitza da zaindu behar dena, eta irizpide hori hartu dugu oinarri egin ditugun proposamen guztietan.
- Beraz, inbertsio lerroak aldatu, eta honako alor sozial hauetan egingo da ahalegin ekonomikoa:
 1. Tokiko ekonomian, bereziki, tokiko merkataritza, ostalaritza eta zerbitzuen sektorean.
 2. Euskal kulturari, bereziki, tokiko sortzaileak lagunduz.
 3. Herritarren gizarte babesa.
- Murrizketa handienak, VI. Kapituluan egin behar izan dira, inbertsioen atalean. Geroratu, atzeratu edo moldatu egin behar izan dira, besteak beste:
 - Erroizpeko filtrazio sistema. Proiektu estrategikoa, ur hornikuntza burujabearen norabidean.
 - Pelaioenean 2020rako aurreikusita zegoen obra. Parte-hartze prozesua atzeratu behar izan da, eta udazkenean egingo da. Obra eta parte-hartzea elkar lotuta daudenez, 2021-2022 aurrekontuetarako atzeratu da.
 - Aginagako Elutx bideko oinezkoen bidea.
 - Hondeamakina berria brigadarentzat.
 - Kiroldegiko harmailak.
 - Troia eta herrigunea lotzeko bidegorria egiteko aurreproiektua.
 - HAPOarekin lotutako, Etxealdiko prozesua. Ikuspegi ekonomikotik baino, udazkenean atzeratu ditugun parte-hartze prozesuengatik: Zubieta, Emakumeen Etxea, HAPO lotutakoak (euskara + generoa). Datorren urtean egingo dira.
 - Efizientzia energetikoa
- Guztira, inbertsio partidetan murriztu behar izan dena: 971.055 €, ia milioi bat euro.
- Eta Artxibo berrantolatze proiektua (50.000) beste modu batera bideratuko da.
- Aldiz, beste gastu partida batzuk modu nabarmenean indartu dira: garapen ekonomikoa (herriko merkataritza sustatzea) + gizarte zerbitzuak (oraingoan, elikadura bermatzeko diru-laguntzak. Eta beharra egongo balitz, partida handitzeko konpromisoa dago).
- Gainerako sailak/arloak, udal-gobernu honentzat estrategikoak eta transbertsalak direnak, bere horretan: euskara, kultura, parekidetasuna, aniztasuna, gizarte zerbitzuak.
- Lehen kapituluan, murrizketarik ez: kalitatezko zerbitzu publikoa eskaintzeko helburuz.
- Diru-laguntzetan ere murrizketarik ez.

Aurrekontua aldatzea eta egokitzea Udal Batza Osoaren eskumena denez, proposamena luzatu zaio dagokion kreditu aldaketak onar ditzan eta jendaurrean jar ditzan, 21/2003 Foru Arauak agindutakoa betez.

Aipatu proposamenak aldeko bi bozka jaso ditu eta beste bi kide abstenitu egin dira. Aurkako bozkarik ez da jaso.”



Usurbilgo Udala

Honela izan da bozketa:

Aldeko botoak: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Beñat Larrañaga Urdanpilleta, Joxe Mari Iribar Zapirain, Aroa Etxeburua Ugartemendia, Luken Arkarazo Silva eta Itziar Basterrika Unanue.

Aurkako botoak: Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu eta Carlos Pérez Fraisoli.

Abstentzioa: Francisco José (Patxi) Suárez Pérez.

Beraz, erabakia gehiengoz hartu da.

6.- EIOZ-ICIO ORDENANTZA FISKALAREN HOBARIAK ALDATZEA.

Alkateak aipatu du gai hau ere Ogasun batzordean tratatu zutela eta jarraian azalpenak eman ditu. Maiatzeko osoko bilkuran aipatu zutela dio indarrean zeuden udalaren ordenantza fiskalak zeintzuk ziren aztertzen ari zirela eta baita ere aplikatu zitezkeen zerga hobariak zeintzuk ziren. Ze helbururekin? Aurreikuspen ekonomiko guztiek diote ekonomiarentzat garai zailak datozela, euskal enpresentzat baita ere eta ondorioz langileentzat. Hurrengo urteetan enpresa garrantzitsuak datozela Usurbilera aipatu du eta horren harira aukera dagoela dio enplegua sustatzea helburua duten proiektuei eraikuntza obretan hobariak aplikatzeko.

Inguruko herrietan zer zegoen aztertzen egon zirela esan du eta ikusi zuten aukera hori jasota zegoela. Zer hobari aplikatu daitezkeen Foru Arau batek zehazten duela gaineratu du.

Josune Urkolak aipatu du beraien ustez enplegua sustatzeko helburua baloratzea oso subjektiboa da. Hori horrela, proposatzen dutena da irizpide batzuk idaztea edo adostea objektiboagoa izan dadin.

Alkateak erantzun dio oker ez baldin badago erredakzioak Foru Arauak markatzen dituela.

Kontuhartzaileak aipatu du berak ere konpartitzen duela duen erredakzioa nahiko anbigua dela baina erredakzio hori Foru Arauan dagoela azpimarratu du, eta Udalak hori ezin duela aldatu.

Mirari Azurmendik esan du hemen aipatzen den 9. artikulua irakurrita (Uztailaren 5eko 11/1989 Foru Araua, Gipuzkoako Toki Ogasunei buruzkoa), berak ulertzen duena da Udalek badutela eskumena hobari hauek aplikatzeko. Interes publikoko eraikuntzen inguruan eztabaidatu dute, Mirariren ustez interes publikoa edukitzea enpleguaren aldetik oso zabala izan daitekeela dio.

Kontuhartzaileak argitze aldera aipatu du ICIOaren ordenantza fiskalaz hitzegiten ari direla eta ICIO Eraikuntza, instalazio eta obrei buruzko zerga dela. Zerga hori ordaintzen dutela dio



Usurbilgo Udala

ekimen pribatua martxan jartzen dutenek. Zumarteko obra adibidez Udalarena izan dela eta ez dela ICIOrik ordaintzen esan du.

Mirari Azurmendik mahai gainean jarri du Matia egiten ari den obra eta honek zerga ordaintzen duen galdetzen du.

Erantzun zaio plenoak herri interesekoa dela onartu zuela eta hobaria aplikatu zitzaiola.

Mirari Azurmendik adibide bezala aipatu du Aginagan adibidez etxebizitza bat moldatzeko obra bat egiteko baimena eskatzen dela eta horrek ere enplegua sustatzen duela. Horrek hobaria izango duen galdetzen du.

Kontuhartzaileak erantzun dio zinegotziek erabakiko dutela hobaria izango ote duen.

Mirari Azurmendik esan du hori oso diskrezionala izan daitekeela, izan beharko lukeela dio teknikarien eskutik pasa eta honek esatea "honi tokatzen zaio eta honi ez zaio tokatzen".

Kontuhartzaileak adierazi du lehen 9. artikulua aipatu dutela eta horren harira esan du 89tik Gipuzkoa osoan indarrean dagoen 15/89 Foru Arauan jasotzen dela artikulua hori eta bertan aurreikusten direla hobari aukera batzuk, bost zehazki. Udalek, 9. artikulua hori erabiliz, batzuk bost horietatik bat hartzen dute, edo bi, edo hiru, edo lau, edo denak. Usurbilen proposatzen dena da bost horietatik lau hartzea. Inguruko udalen kasuak aipatu ditu eta gaineratu du guztiek jasotzen dutela Foru Arauak duen erredakzio berdina, horrek segurtasuna ematen duelako.


Mirari Azurmendik galdetu du ea irizpide batzuk finkatu daitezkeen erabakia justua izateko eta inpartzialtasuna bermatzeko.

Idazkariak esan du Ogasun Batzordean erregelamendu bat onartu beharko luketela kasu bakoitza nola neurtu jakiteko. Gaineratu du ekintza diskrezionalak legezkoak direla.

Kontuhartzaileak aipatu du berak dakiela Gipuzkoan inongo Udalek ez dauka horrelakorik.

Hala ere, proposamen zehatz bat aurkeztera gonbidatu ditu, berak interes handiarekin proposamen hori aztertuko duela eta bere iritzia emango duela esan du.

Alkateak gaineratu du kasu honetan hobari hori aplikatzeko eskaera hirugarren horrek egin behar duela eta arrazoitu egin beharko duela, ondoren udalak eskaera aztertu egin beharko du, ez dela udal gobernutik aterako den iniziatiba bat izango esan du.



Usurbilgo Udala

Batzarkideek, Ogasun batzordearen irizpena aztertu dute eta gehiengoz onartu dute, honela dio:

“Usurbilgo udalerrian indarrean dagoen ordenantza fiskalak bere 11. Artikuluan jasotzen ditu zerga hobariak aplikatzeko zenbait aukera, 5 zehazki.

Gipuzkoako udal guztientzat baldintza orokorrak ezartzen dituen 15/1989 Foru Arauak malgutasun handiagoa eskaintzen du, hala nahi duten udalek bere nahietara egokitu ditzaten hobariak.

Aurreko biak uztartuz, etorkizun laburrean Usurbilgo udalerrian aurre ikusten diren zenbait proiektu garrantzitsu bideratzeko lagungarria izan daiteke hobarien aukera eta esparrua malgutasunez jorratzea.

Horregatik, garai zailak iritsi aurretik bidea leundu nahian, indarrean dagoen ordenantza fiskalaren 11. Artikulua (hobariak arautzen dituen) aldatzea proposatu zaio Udal Batza Osoari, hobari berriak honela geldituko direlarik:

VII. HOBARIAK

11. Artikulua.

1.- Uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauak, Gipuzkoako Toki Ogasunei buruzkoak, 9. Artikuluan xedatutakoaren arabera, honako hobariak onartu ditu Usurbilgo Udalak:

- a) **% 90 Eraikuntzak, instalazioak edo obrak interes berezikoak edo udal onurakoak** izendatuta daudenean zirkunstantzia sozial, kultural edo historiko-artistikoak izateagatik edo enplegua sustatzeko baliagarriak gertatzeagatik. Izendapena Udalbatzarrak onartu beharko du, eta subjektu pasiboak eskatuta erabakiko da, batzarkideen gehiengo soilaren aldeko botoekin.
- b) **%95 Eraikuntza, instalazio edo obretan eguzki energiaren aprobetxamendu termiko edo elektrikoa ahalbidetzen duten sistemak ezartzen badira autokontsumoari begira.** Dena den, hobari hau aplikatu ahal izateko, ezinbestekoa izango da beroa sortzeko instalazioak Administrazio eskudunak homologatutako kolektoreekin hornituta egotea.
- c) **%15eko hobaria, etxebizitza babestuekin** zer ikusia duten eraikuntza, instalazio edo obrak direnean, subjektu pasiboak eskaera bideratu beharko duelarik.
- d) **%90 Eraikuntza, instalazio edo obrek pertsona ezinduen irisgarritasun eta habitagarritasun baldintzak errazten dituztenean.**

Oharrak:

-Ezinezkoa da aldi berean hobari bat baino gehiago aplikatzea. Hau da, eraikuntza, instalazio edo obra bakoitzak hobari bakarria izango du, zergadunarentzat onuragarriena dena alegia.

-Obrak irisgarritasuna eta habitagarritasuna erraztekoak izango dira, eta ondorioz hobaria izango dute, baldin eta ziurtagiri baten bidez udal teknikari batek obra horiek ezinduen irisgarritasuna eta habitagarritasuna hobetzeko derrigorrezkoak direla azaltzen badu.



Usurbilgo Udala

Aipatu proposamenak aldeko bi bozka jaso ditu eta beste bi kide abstenitu egin dira.”

Honela izan da bozketa:

Aldeko botoak: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Beñat Larrañaga Urdanpilleta, Joxe Mari Iribar Zapirain, Aroa Etxeburua Ugartemendia, Luken Arkarazo Silva eta Itziar Basterrika Unanue.

Aurkako botoak: Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu eta Carlos Pérez Fraisoli.

Abstentzioa: Francisco José (Patxi) Suárez Pérez.

Beraz, erabakia gehiengoz hartu da.

7.- 2020KO LANPOSTUEN ZERRENDAREN ALDAKETA.

Beñat Larrañagak esan du 7. eta 8. puntuak bakoitza bere aldetik bozkatzen direla baina erabat lotuta daudela.

Jarraitu du esanez Poliziaren legean aldaketa bat izan zela eta horrek behartzen zituztela udaltzainen antolaketan Agente Lehenaren postua sortzera.

Agente Lehenaren funtziotan hiru funtzio direla dio udaltzain batenetik desberdintzen direnak, hain zuzen ere, udaltzainburuari laguntzea edo honek kale egiten duenetan bere funtzio edo betebeharrak hartzea. Funtzio berri horiek tarteko, maila ekonomikoan ere bereizgarri bat izan behar zuela ulertzen zuten eta proposatzen dena da 12. maila izatea.

Batzarkideek, Pertsonal batzordearen irizpena aztertu dute eta aho batez onartu dute, honela dio:

“2020ko Lanpostuen zerrenda 2019ko azaroaren 28ko udalbatzan onartu zen. Ondoren, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Ekainaren 27ko 7/2019ko legearen arabera Usurbilgo Udaltzaingoaren Antolamenduaren eta Funtzionamenduaren erreglamendua aldatu zen eta 2020ko otsailaren 10ean GAO-n argitaratu. Bertan Agente Lehenaren figura juridikoa sortu zen.

Honen ondorioz, Lanpostuen zerrendan Agente Lehenaren plaza sortu beharko da eta bere ezaugarriak erantsirik doaz.

Lanpostuen zerrenda apirilaren 18ko 781/1986 Errege Dekretu Legegileak 126. eta hurrengoetan eta uztailaren 6ko Euskal Funtzio Publikoari Buruzko 6/1989 Legeak 13. artikulua eta hurrengoetan arautzen da. Dagokion iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da. Dena den, egintza administratiboa den heinean, argitaratzea informazioa emateko helburuarekin egiten da eta hortaz, indarrean egongo da, Udalbatzaren erabakitik.



Usurbilgo Udala

Gaia 2020ko uztailaren 14an egindako Pertsonal Batzordean eztabaidatu ondoren gehiengo onartua gelditu da, hurrengo bozkak eman direlarik:

- Aldeko botoak: Beñat Larrañaga, Itziar Basterrika, Carlos Pérez eta Patxi Suarez.

Beraz, hau guztia kontutan harturik, Udalbatzarrak honako erabakia hartu du:

LEHENENGO: 20120ko Lanpostuen Zerrendan proposatutako aldaketak sartzea.

BIGARREN: Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkia argitaratzea.”

Honela izan da bozketa:

Aldeko botoak: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Beñat Larrañaga Urdanpilleta, Joxe Mari Iribar Zapirain, Aroa Etxeburua Ugartemendia, Luken Arkarazo Silva, Itziar Basterrika Unanue, Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Carlos Pérez Fraisoli eta Francisco José (Patxi) Suárez Pérez.

Beraz, erabakia aho batez hartu da.

8.- 2020KO PLANTILA ORGANIKOAREN ALDAKETA.

Batzarkideek, Pertsonal batzordearen irizpena aztertu dute eta aho batez onartu dute, honela dio:

“2020ko Plantilla Organikoa 2019ko azaroaren 28ko ohiko udalbatzan onartu zen. Ondoren, erreklamaziorik egon ez zenez, behin betikoz Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Ekainaren 27ko 7/2019ko legearen arabera Usurbilgo Udaltzaingoaren Antolamenduaren eta Funtzionamenduaren erreglamendua aldatu zen eta 2020ko otsailaren 10ean GAO-n argitaratu. Bertan Agente Lehenaren figura juridikoa sortu zen.

Honen ondorioz, Plantilla Organikoan Agente Lehenaren plaza sortu beharko da.


Gaia 2020ko uztailaren 14an egindako Pertsonal Batzordean eztabaidatu ondoren gehiengo ONARTUA gelditu da, hurrengo bozkak eman direlarik:

- Aldeko botoak: Beñat Larrañaga, Itziar Basterrika, Carlos Pérez, Patxi Suarez

Beraz, hau guztia kontutan harturik, Udalbatzarrak honako erabakia hartu du:

LEHENENGO: 2020ko plantillan proposatutako aldaketak sartzea.

BIGARREN: Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkia argitaratzea.”



Usurbilgo Udala

Honela izan da bozketa:

Aldeko botoak: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Beñat Larrañaga Urdanpilleta, Joxe Mari Iribar Zapirain, Aroa Etxeburua Ugartemendia, Luken Arkarazo Silva, Itziar Basterrika Unanue, Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Carlos Pérez Fraisoli eta Francisco José (Patxi) Suárez Pérez.

Beraz, erabakia aho batez hartu da.

9.- HIRI ANTOLAMENDUKO ARAU SUBSIDIARIOETAKO A-59 (UGARTONDO) EREMUKO XEHETASUN-AZTERKETAREN ALDAKETA BEHIN BETIKOZ ONARTZEA.

Alkateak adierazi du tramitazio urbanistikoaren azken urratsa dela honakoa, hau da, Ugartondo eremuko xehetasun azterketaren aldaketaren behin betiko onarpena.

Batzarkideek, Hirigintza batzordearen irizpena aztertu dute eta gehiengoz onartu dute, honela dio:

“Esp. Zenbakia: HZ.01/2015-0064

AURREKARIAK

2020ko apirilaren 22an, Alkateak 2020/0248 dekretuaren bidez zera erabaki zuen:

LEHENDABIZI: Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-59 (Ugartondo) eremuko Xehetasun-Azterketaren aldaketa hasieraz onartzea.

BIGARRENA: Espedientea jendaurrean jartzea 20 lanegunez, dagokion iragarkia iragarki taulan, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta ohizko egunkarietan argitaratuz, interesatuek azterlana aztertu, eta hala badagokio, bidezko alegazioak aurkeztu ditzaten.

JENDAURREKO EPEALDIA

Hartutako erabakia kontutan izanik, espedientea jendaurrean jarri zen 20 lanegunez ondoko iragarkia argitaratuz:

- Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala (78. zenbakia): 2020-04-28
- Berria: 2020-06-04
- Gara: 2020-06-04
- El Diario Vasco: 2020-06-04

Espedientea jendaurreko epealdian egon den bitartean ez da alegaziorik tartekatu.



Usurbilgo Udala

Guzti hau ikusirik, Hirigintza Batzordeak, 2020ko uztailaren 9an egindako bilkuran, Agurtzane Solaberrieta eta Lur Etxeberriaren aldeko botoekin, eta Carlos Perezen abstentzioarekin, egindako irizpena kontutan hartuta, Udalbatzarrak honako erabakia hartu du:

E R A B A K I A

LEHENENGOA: Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-59 (Ugartondo) Eremuko Xehetasun-Azterketaren ALDAKETA behin betikoz onartzea.

BIGARRENA: Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-59 (Ugartondo) Eremuko Xehetasun-Azterketaren ALDAKETA Foru Aldundira igortzea, bertako hirigintzako plangintzaren erregistro administratiboan gorde dadin.

HIRUGARRENA: Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-59 (Ugartondo) Eremuko Xehetasun-Azterketaren ALDAKETA behin betiko onespena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea, hirigintza-plana Foru Aldundiko hirigintza plangintzaren erregistro administratiboan jaso dela aipatuz."

Honela izan da bozketa:

Aldeko botoak: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Beñat Larrañaga Urdanpilleta, Joxe Mari Iribar Zapirain, Aroa Etxeburua Ugartemendia, Luken Arkarazo Silva eta Itziar Basterrika Unanue.

Abstentzioa: Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Carlos Pérez Fraisoli eta Francisco José (Patxi) Suárez Pérez.

Beraz, erabakia gehiengoz hartu da.

10.- GALDERA-ESKAERAK.

Abuztuan ez dela ez batzorde ez plenorik izango esan da.

Alkateak batzarraldia bukatutzat eman du arratsaldeko 20:00etan eta bilera agiri hau jaso da, alkateak izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.